

**GOI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOETARAKO SARBIDE PROBA ETA GOI MAILAKO
ARTE IKASKETETAN SARTZEKO HELDUTASUN PROBA
ZATI KOMUNA
2019ko DEIALDIA**

31/2019 EBAZPENA, otsailaren 1ekoa

22-05-2019

HISTORIA

EPAIMAHAI

KALIFIKAZIOA



DEITURAK

IZENA

NANa/ANTa

A AUKERA

GAIA: ALFONTSO XIII.A ERRESTAURAZIOAREN KRISIA

TESTUA: ALFONTSO XIII.AREN ABDIKAZIOA

*Igandeko hauteskundeek argi erakutsi didate **herriak ez nauela maite**. Nire kontzientziak esaten dit desbideratze hori ez dela behin betikoa izanen, Espainiaren zerbitzura jarduten saiatu bainaiz beti, interes publikoa soilik aintzat hartuta, baita koiuntura larrienetan ere. Errege batek huts egin dezake, eta, zalantzarik gabe, nik ere noizbait huts egingen nuen, baina ongi dakit gure aberria eskuzabala izan dela beti maleziarik gabeko erruekin. Espainiar guztien erregea naiz eta, halaber, espainiarra. Behar adina bitarteko lor ditzaket nire errege-eskumenei eusteko, haien aurka jotzen dutenen kontra borrokatuz; baina urrundu egin nahi dut herrikide bat beste herrikide baten aurka jar dezakeen orotatik; ez dut nahi gerra zibil fratrizidarik sor dadin.*

*Ez diet nire eskubideei uko egiten, historian metatutako gordailua baitira nireak baino gehiago, eta kontu zorrotzak eman beharko ditut egunen batean eskubide horien zaintza dela eta. Kontzientzia kolektiboaren benetako adierazpena ezagutzea espero dut. Nazioak hitz egin bitartean, **errege-boterearen erabilera eteten dut, nahita**, Nazioa bere etorkizunaren jaun eta jabe dela aitortuta.*

Orain ere, aberriarekiko maitasunak agintzen didan eginbeharra bete nahi dut. Jainkoari eskatzen diot espainiar guztiek hori nik bezain sakon sentitu eta bete dezatela.

*1931ko apirilaren 14a
Alfontso, Erregea.*

- 1.- Testuaren laburpena (3 puntu)
- 2.- Azaldu ezazu zure hitzekin testuan beltzez agertzen diren bi adierazpenak (2 puntu).
- 3.- Azaldu zein testuinguru historikotan idatzi zen testu hau (2 puntu).
- 4.- Alfontso XIII. aren erregealdiaren eboluzioa: etapak eta gertakari nagusiak (3 puntu)

**GOI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOETARAKO SARBIDE PROBA ETA GOI MAILAKO
ARTE IKASKETETAN SARTZEKO HELDUTASUN PROBA
ZATI KOMUNA
2019ko DEIALDIA**

31/2019 EBAZPENA, otsailaren 1ekoa

22-05-2019

HISTORIA

B AUKERA

GAIA: ERREGIMEN ZAHARRAREN KRISIA

TESTUA: FERNANDO VII.AREN DEKRETUA, VALENTZIAKOA

Nire Aita agurgarriak naturalki eta hotsandiz egin zion uko Tronuari eta, orduan, Jainkoaren Probidentziak nire arbasoen Tronuan jarri ninduen, ordurako jada Erreinuak ikusia baitzuen nola sinatu nuen Tronurako ondorengotza, Gorteetan bildu ziren Erreinuaren prokuradoreen bidez. Ordutik aurrera (...).

*Nire lehen egintzak izan ziren beren karguetara itzultzea zenbait magistratu eta beste zenbait pertsona, beren karguetatik arbitrarioki kendu baitzituzten; ezin izan nuen beste ezer egin, kontuan izanda egoera gogor hura eta **Bonaparteren zitalkeria. Baionara joan nintzen, hain zuen, nire herriak babestera zitalkeria horren ondorio krudeletatik.***

Errege Familia han bildu zelarik, atentatu izugarri batez kolpatu zuten familia osoa eta bereziki nire pertsona (...), jendeen zuzenbide sakratua erabat bortxatuz, askatasuna kendu zidaten eta, egitatez, Gobernua eta nire Erreinuak ere kendu zizkidaten; hala, jauregi batera eraman ninduten, nire anaia maiteekin eta osaba maitearekin batera, eta areto hura izan genuen presondegi itxurosoa sei urteetan (...).

*Horrela, dena Gorteen eskuetan geratu zen, eta Gorteek, abian jarri ziren egun berean, (...) **subiranotasuna kendu zidaten (...) eta Nazioarena zela esan**, horrela beraiek hartaz jabetzeko, eta Nazioari emateko (...) Konstituzio bat (...) beraiek onetsi eta argitaratu zutena 1812an.*

Tronuaren eskumenen kontrako lehen atentatu hori (...) oinarria izan zen gero beste asko egiteko (...); hala onetsi ziren, ez Monarkia moderatu baten oinarritzko legeak, baizik eta Gobernu herrikoi batenak (...).

Nire erreinuan zorian betean sartu nintzen eta horren guztiaren berri zehatzak jasoz joan nintzen eta jakin nuen (...). Zin egiten dizuet eta hitz ematen dizuet, hainbeste sufritu duzuen egiazko espainiar leialak, ez duzuela desilusiorik jasanen zuen ahalegin nobleetan (...).

Horrenbestez, entzun dudalarik (...) beren arduragatik eta ezagutzagatik ohoragarriak diren pertsonen niri ekarritako informazioa eta, halaber, Erreinuak zenbait alderditatik bidali dizkidaten ordezkariak azaldu didatena hemen aipatzen dudan guztiari buruz, (...) deklaratzan dut nire errege-asmoa dela ez zin egitea eta ez onartzea aipatutako Konstituzioa, ezta Gorte Nagusiek eta bereziek edo egun abian diren Gorte arruntek emandako edozein dekretu ere (...); horretaz gain, deklaratzan dut baliogabeak direla eta ez dutela ondoriorik Konstituzio hark eta dekretu haiek, (...) egintza horiek inoiz egin izan ez balira bezala eta denboratik kenduko balira bezala, nire herriek eta edozein maila eta egoeratako nire mendekoek ez dutelarik haiek bete eta zaindu beharrik.

Valentzian emana, 1814ko maiatzaren 4an. - Ni Erregea.

- 1.- Testuaren laburpena (3 puntu)
- 2.- Azaldu ezazu zure hitzekin testuan beltzez agertzen diren bi adierazpenak (2 puntu).
- 3.- Azaldu zein testuinguru historikotan idatzi zen testu hau (3 puntu).
- 4.- Definitu termino hauek: "Fontainebleauko Hitzarmena" eta "Aranjuezko matxinada" (2 puntu)

**GOI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOETARAKO SARBIDE PROBA ETA GOI MAILAKO
ARTE IKASKETETAN SARTZEKO HELDUTASUN PROBA
ZATI KOMUNA
2019ko DEIALDIA**

31/2019 EBAZPENA, otsailaren 1ekoa

22-05-2019

HISTORIA

**GOI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOETARAKO SARBIDE PROBA ETA GOI MAILAKO
ARTE IKASKETETAN SARTZEKO HELDUTASUN PROBA
ZATI KOMUNA
2019ko DEIALDIA**

31/2019 EBAZPENA, otsailaren 1ekoa

22-05-2019

HISTORIA

**GOI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOETARAKO SARBIDE PROBA ETA GOI MAILAKO
ARTE IKASKETETAN SARTZEKO HELDUTASUN PROBA
ZATI KOMUNA
2019ko DEIALDIA**

31/2019 EBAZPENA, otsailaren 1ekoa

22-05-2019

HISTORIA